

PRENTSA-KOMUNIKATUA.

IRAKASKUNTZA PUBLIKOAREN NEGOZIAZIO MAHAI SEKTORIALEKO SINDIKATUAK.

Hezkuntzako Negoziazio Mahai Sektorialeko sindikatu guztiok Hezkuntza Kontseilariari eta Nafarroako Gobernuari hurrengo galdera luzatu nahi diegu: zer nahi dute 24/25 ikasturtea benetako negoziatioekin hasi, hau da, irakasleen aldarrikapenei erantzunez, ala ikasturte gatazkatsua?

23/24 ikasturtean, sindikatuok negoziatzeko prest agertu gara eta hezkuntza publikoko irakasleentzat hobekuntzak lortzen saiatu gara. Ikasturte hasieratik planteatutako aldarrikapenak lortzeko lantaldeetan aritu gara, baina ez da gutxieneko aldaketarik ere gertatu.

Ikasturte bukaeran, egiaztatzen dugu irakasleek hasieran salatzen genituen arazo berberak ditugula: lan gainzama, gehiegizko ratioak, erosahalmenaren galera eta plantillen ezegonkortasuna. Jakina denez, gai horiek guztiek eragina dute Nafarroako hezkuntza sistema publikoaren kalitatean.

Horregatik, kontseilariak eta Nafarroako Gobernuak gure eskaerei benetako prestutasunez erantzutea nahi dugu, akordioak lortzeko eta horiek finantzatzeko konpromiso irmoarekin.

Aipatutako arazoak Parlamentuko taldeei ere helarazi zaizkie eta horiek bat egin dute irakasleek dituzten arazoei aurre egiteko eta irtenbideak negoziatzeko beharrarekin.

Hezkuntza Departamentuarekin egindako bilera guztietan erantzun bera jaso dugu sindikatuok: irakasleen eskaerei heltzeko aurrekonturik ez dagoela. Irailean 2025erako Nafarroako aurrekontuaren osaera abian jarriko denez, ekiteko unea dela uste dugu eta Gobernuak lehentasuntzat har ditzala hezkuntza publikoko irakasleak. Kontu hau nahitaez aurrekontu partidetan islatu behar da, eta Gobernuak dauka horren ardura.

Ildo horretan, iragartzen dugu irailean irakasleen ordezkariak garen sindikatu guztiak mobilizazioekin hasiko garela. Nafarroako datorren urteko aurrekontuetan irakasleen aldarrikapenei erantzuteko partidak eskatuko ditugu. Badakigu arazo guztiei aldi berean irtenbidea ematea ezinezkoa dela, baina hori bideratuko duen egutegi bat osa daiteke.

Ikasturte hasieran mobilizazioak ugarituko dira eta sindikatu guztiok bat eginik greba egun baterako deitzen dugu, irailaren 26an hezkuntza sistema publikoa geldituko dugu.

Espero dugu kontseilaria eta Nafarroako Gobernua errealitateaz ohartzea, eta aintzat hartzea Nafarroako irakaskuntza publikoko irakasleen eskaerak.

Iruñean, 2024ko ekainaren 27an.

